

PuLunPe

ANUE, ATETZ, BASABURUA, IMOTZ, LANTZ, ODIETA ETA ULTZAMAKO ALDIZKARIA

175. Zenbakia



"KUKUA" **Kirmen Uribe**

*Apirilaren hasieran entzun zuen
aurrena kukua.
Urduri zebilelako beharbada,
kaosa ordenatzeko joera ho-
rrengatik beharbada,
kukuak zein notatan kantatzen
zuen jakin nahi izan zuen.*

*Hurrengo arratsaldean, hantxe
zegoen basoan zain,
diapasoia eskuan, kukuak noiz
kantatuko.
Diapasoia ez zioen gezurrik.
Si-sol ziren kukuaren notak.*

*Aurkikuntzak bazterrak astindu
zituen.*

*Mundu guztiak frogatu nahi
zuen benetan
nota horietan kantatzen ote
zuen kukuak.*

*Baina neurketak ez zetozen bat.
Bakoitzak bere egia zuen.*

*Fa-re zirela zioen batek, Mi-
do besteak.*

*Ez ziren ados jartzen.
Bitartean, kukuak kantari ja-
rraitzen zuen basoan:
ez si-sol, ez fa-re, mi-do ezta
ere.*

*Mila urte lehenago bezala,
kukuak kuku, kuku kantatzen
zuen.*

FESTA DEZAGUN GAURDANIK GEROA!

Emakumeok* ez dugu zati izan nahi, ez gara "beste horiek"; ez jaietan, ez inoiz. Gu baikara festa, komunitatea eta herria bera. Parte bat izan beharrean, osotasunean murgiltzera irakatsi digu borroka feministak. Horregatik guztiagatik, emakumeok jaietan ikuskizun eta dantzalekuen parte izan behar gara, baina ez espektakulu edo erakarpen turistiko gisara. Guretzako plazera bilatu nahi dugu, eta ez beti besteentzat plazer iturri izatea, patriarkatuak agindu moduan. Bagara nor erabakitze, nola, norekin eta noiz gozatu nahi dugun, etengabe epaituak edo erasotuak ez izateko eskubide osoz.

Festa dezagun gaurdanik geroa! Herritarrok jaietan ikusle edo hartzaile hutsak izan beharrean,

jaso besterik egiten ez dugunok, baliatu ditzagun lotura komunitarioak eta gure indar sortzailea bestelako ereduak eraikitze. Erreparatu diezaigun bidearen nolakotasunari, autogestio zein auzolanaren logikan sakonduz, gaurko eredu patriarkalaren rol banaketa eta indarkerien erakusleho izan beharrean, bilakatu ditzagun jaiak amesten dugun herriaren agertoki.

Norabide horretan, ate joka ditugun hainbat eta hainbat galdera erantzuteko prozesu kolektibo baten beharra mahaigaineratzen dugu: Zelako janari, edari eta drogak behar izaten ditugu ongi pasatzeko? Zeri erantzuten dio horrek, edo nondik dator kontsumitzen duguna? Zer da jaiak errentagarriak izatea? Nor falta da festa lekuetan eta zergatik? Nola eta norentzat erabakitzen dira egitarauak? Parte gara? Zer jartzen dugu balioan festetan? Gaueko giroaz gain, eguneko ekimen edo harremanak zaintzen al ditugu? Jaietan zeinek egiten ditu ezkutuko lanak? Nork dauka nahi bezala gozatzeko aukera? Zeini ematen zaio erasotzeko eskubidea? Espazio seguruak bermatzen ditugu guztiontzat?

Askotarikook elkarrekin nahi ditugun jaiak irudikatzeko eta hurrengo urratsak marrazteko, galdera berriak identifikatu eta kolektiboki erantzunak topatzeko prest al gaude?

Euskal Herriko Bilgune Feminista
Euskal Herrian, 2018ko udan
FESTA DEZAGUN GAURDANIK GEROA!



PULUNPEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitaratzailea AMETZA KULTUR ELKARTEA..

Pulunpe Sarea: Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... Barkatu aipatu ez zaituztegunoi.

Emaila: pulunpe@gmail.com

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Sareko taldekideez gain, Txurdan.

Koordinatzaileak: Lur Gil Rey eta Itziar Perez Argomaniz

Maketazioa: Lur Gil Rey

Tirada 1.600 ale | Inprimategia: Gertu

Lege gordailua: NA 721/93

Inprimategira Uztailaren 24an bidalia

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra



HORMARA

Ekaina - Junio

Erakusketa / Exposición

Del 1 al 28 de Junio / Ekainaren 1tik 28ra

Mila Boj

Estampando lo que veo a pie de calle.

Es una muestra de trabajos con distintas técnicas de grabado, serigrafías, litografías, punta seca.

Kalean ikusten dudana inprimatuz.

Serigrafiaz, litografiatuz, punta lehoraz eta grabatzeko beste hainbat teknikaz egingiko lanen erakusketa.



19:00 Larraintzarko Bentan

8

GAZTELERAZ (CASTELLANO)



3€

Apuntarse previamente en el 948-30 5353. Plazas limitadas. Izena eman 948-30 5353 telefonoan. Plaza mugatuak.

ARDO DASTAKETA LITERARIOA CATA DE VINO LITERARIA

Literatura y vino, una mezcla inmejorable. De la mano del escritor Carlos Olló (que ha combinado estos dos elementos en su última novela, A la luz del vino), y del experto en vino, Alberto Dito, podremos degustar una buena selección de caldos y autores que nos ayudarán con sus explicaciones a saborear este maridaje perfecto entre enología y novela negra.

Literatura eta ardoa, konbinazio hobezina. Carlos Olló idazlearekin eta Alberto Dito ardoan adituarekin hainbat ardo eta egile dastatzeko aukera izango dugu. Ollók bi osagai hauek, ardoa eta literatura, lotu ditu bere azken eleberrian, A la luz del vino. Biek beraien azalpenaz nobela belfiza eta enologiaren arteko harreman perfektua gozatzeko lagunduko digute.



18 urteetatik aurrera
Mayores de 18 años

15 20:00 16 17:30 20:00 Larraintzarko Bentan

15-16

GAZTELERAZ (CASTELLANO)



5€

Antzerkia AXOLAGABE Teatro

Eloisa almeidondoko baten azpian dago

Zentzutasunik gabeko bi familia, Brionestarrak eta Ojedatarrak.

Hamabi pertsonaia, bakoitza bere harrikadarekin.

Sei aktoreak: Bego, Mamen, Ainara, Elena, Marisol, Julia. Hiru aktore: Alfonso, Mikel, Fran. Zuzendaria: Isa. Gure kolaboratzaileak: Amaia, Jesús Mari, Cris, Amparo, Rosi, Gloria... eta beste batzuk.

Eloisa está debajo de un almendro

Dos familias, en las que la cordura brilla por su ausencia, los Briones y los Ojeda.

Doce personajes, cada uno con su pedrada.

Seis actrices: Bego, Mamen, Ainara, Elena, Marisol, Julia. Tres actores: Alfonso, Mikel, Fran. La directora: Isa. Nuestros colaboradores: Amaia, Jesús Mari, Cris, Amparo, Rosi, Gloria... y demás.



10 urteetatik aurrera
Mayores de 10 años

18:00 San Urbano

22



Izena eman 948-30 5353 telefonoan. Apuntarse previamente en el 948-30 5353

BAÑO FORESTAL - SHINRIN YOKU

"Sumérgete en el bosque y déjate ser"

Javier Gómez Garrapoko ingurumen-hezitzaileak basoaren erreflexuaren bidez geure burua deskubritzeko aktibitateak proposatzen ditu. Basoak bere gardentasun eta zintotasunez geure burua berriz konektatzen, sortzen eta pentsatzen laguntzen ditu. Basoan ibilaldi gidatu bat egingen dugu eta jateko ekarri duguna partekatzen bukatuko dugu.

Javier Gómez, Educador ambiental de Garrapo, nos propone una actividad para descubrirnos a través del reflejo del bosque. El bosque transparente y sincero nos ayudará a reconectarnos, regenerarnos, repensarnos... Se realizará un paseo guiado por el bosque y acabaremos merendando compartiendo lo que hayamos traído.

19:00 Larraintzarko Bentan

30



DANTZA TA MUSIKA AFRO IKUSKIZUNA ESPECTACULO DE MUSICA Y DANZA AFRO

Afrikako mendebaldeko perkusio tradizionala. Hiru lagunaren arteko solasaldia. Mingaina Djendea eta perkusioa hizkuntza.

Música tradicional de la zona occidental de África. Diálogo entre tres compañeros. El Djembe es la lengua y la percusión el idioma...



MUSIKA, DANTZA, ANTZERKI EDO ARTEAREN MUNDUAN ARITZEN BAZARA, LAGUNTZA EKONOMIKORIK BEHAR AL DUZU?



ARTE-KULTURA ETA KIROLETARAKO DIRU-LAGUNTZAK

Info gehiago/más información:
 - Ultzamako udaletxean
 - ultzama.eus web orrian
 - 948.305353 telefonon

PILOTA, FUTBOLA, ERRUGBI, ESKALADA EDO BESTE EDOZEIN KIROLETAN ARITZEN BAZARA, LAGUNTZA EKONOMIKORIK BEHAR AL DUZU?



ARTE-KULTURA ETA KIROLETARAKO DIRU-LAGUNTZAK

Info gehiago/más información:
 - Ultzamako udaletxean
 - ultzama.eus web orrian
 - 948.305353 telefonon



ORGANIZAZIOTZAILERAK:
VIN BOCANE DE NAVARRA
NAFARRAKO VIN BOCANE
 2018ko urteko 2. edizioa
 2018ko urteko 2. edizioa

Patrocinatzaileak:
 - Euzko Lehiaketa
 - Euzko Lehiaketa
 - Euzko Lehiaketa
 - Euzko Lehiaketa

Patrocinatzaileak:
 - Euzko Lehiaketa
 - Euzko Lehiaketa
 - Euzko Lehiaketa
 - Euzko Lehiaketa

Informazioa/Información gehiago:
<https://www.patrocina.com/na/na/na/>

Udako Eskaintza 2018



aek udako plazer txikiak
 pequeños placeres de verano

Euskara ikastaroak
 Cursos de euskera

www.aek.eus

GARTZARONGO SAGARRIN PILOTA TXAPELKETA
KONBIDAPENA - INVITACIÓN

Desde el Club filial TokiAlai de Gartzaron se invita a participar en el 34º Campeonato de Pelota a Mano.

El campeonato comenzará el día 22 de julio, y la fecha tope para apuntarse será el 5 de julio.

Weskak (Irakila) pilota mixtaren txapelketa mixta
 Bona puntuazioa adina ta kluba ipaia.
 Apuntar individualmente poniendo la edad y el club; la organización hará las parejas.

Umeak (alevines): 2006-2007 urtekoak
 Harorak (infantiles): 2004-2005 "
 Gazteak (Cadetes): 2.002-2003 "
 Gazteak (juveniles): 2.000-2.001 "
 Helduak (Mayores): 2.000 gorakoak

HARREMANETAN JARTZEROKO (para inscribirse)
 e-mail: tokiailaipilota@gmail.com
 Mòbil: 659443664 (Mikel)

Besterik gabe (Sin mas), agur berro bat, laister arte.
 Gartzarondik, maiatzak 31an
TOKIALAI ELKARTEA



PINTXO POTE
 2€

OSTIRAL
 ETA
 LARUNBAT
 GUZTIETAN

20:00etatik
 21:30etara

AIZAROKO OSTATUAN

EUSKARALDIA
 11 EGUN EUSKARAZ

BASABURUA-IMOTZ
EUSKARALDIAREN
AURKEZPENA
EKAINAK 22
 AIZAROKO HERRIKO ETXIAN - 19:00ETAN



LARRITZ APARDOZ (ETA ENERO GORRI)
 ONDOKO LANTZA EGONEN DA
 2018ko 2018ko
 BITE OTATUAN BASABURUA-IMOTZ AIZAROKO ETXIAN 19:00ETAN

"Ostiral kulturalak antolatzea gustatuko litzaizuke? Kontzertuak, hitzaldiak, antzerkiak...
ZATOK DINAMIZAZIO BATZORDERA!
 Hilabeteko lehengo ASTEARTEETAN biltzen gara arratsaldeko 17:00etan gizarte etxean. Anima zaitetz!
 Email bidez informazioa jasotzeko: kulturamugi@gmail.com"

amezti.eus jaio da



Sarera salto egin du Ultzama aldeko aktualitateak. Egunez egun, eta multimedia formatuan, gurean gertatzen den guztiaren berri izanen dugu aurrerantzean. Telefono mugikorrean, ordenagailuan edo tabletan erabili dezakegu, alegia gaur egungo gure egunerokotasuna osatzen duten tresnetan.

Eskualdean euskaraz dugun hirugarren komunikabidea da amezti.eus agerkari digitala, aurretik ditugun Pulunpe aldizkariarekin eta Esan Erran irratiarekin uztartzen dena. Hirurak erabilgarriak, hirurak osagarriak. Gure gizartera egokitutako teknologia erabiltzen asmatzea ezinbestekoa da, aukera berriak baloratuz. Horregatik, papera eta uhinak mantenduz, agerkari digitalaren bidez ikus-entzunezko formatuak landuko ditugu, gaurkotasuneko edukiak multimediaren bidez landuz: testu idatzia, argazki-galeriak, bideoak, audioak eta abar.

Bestalde, amezti.eus-ek ez du gaurkotasuna norabide bakarrean landuko, ez ditu kontsumitzaileak nahi, komunitate bat osatzea baizik. Herritarron parte-hartzea agerkari digitalaren ardatzetako bat da, eta horregatik, erreportaje honen bidez, parte-hartzeko aukerak azalduko dizkizuegu.

Ultzama aldeko aktualitatea egunez egun

Eskualdean gertatzen den guztia jasoko dugu agerkari digitalean. Basaburua, Imotz, Atetz, Ultzama, Odieta, Lantz eta Anueko berriak argitaratuko dira, eta gure eskualdearekin zerikusia duen guztia.


Bailaraz bailara sailkatuta egonen da, eta beraz, zure bailaran gertatzen denaren berri jaso nahi baduzu, bailararen botoia sakatuta aski duzu. Gaika ere antolatuko ditugu albisteak: kirola, nekazaritza, kultura, ingurumena, hezkuntza, politika...



Esan Erran irratia zuzenean

Gure uhinak ez dira eskualdetik kanpora iristen, baina kanpoan zaudenean internet bidez gure irrati entzuteko aukera izanen duzu, "entzun zuzenean" botoia sakatuz.

Egindako irratsaioak eta elkarrizketak ere artxibatuko ditugu agerkari digitalean, edonoiz entzuteko aukera izan dezazuen.



Pulunpe, etxean baino lehenago

Pulunpe aldizkaria pertsona boluntarioen lanari esker jasotzen duzu etxean, baina egun batzuk igarotzen dira inprentara bidaltzen dugunetik zuen etxera iristen den arte. Horregatik, hilabete bakoitzaren amaieran, aldizkaria amaitzen dugunean, amezti.eus gunean eskegiko dugu, bertan irakurri ahal dezazuen.

Gainera, Pulunpe guztien artxiboa izanen da, eta azken urteetako aleak irakurri ahalko dituzu.

Agenda

Eskualdean egiten diren ekitaldi guztien berri izanen duzu amezti.eus agerkari digitalean. Gu-rean antolatzen diren ekitaldi, hitzaldi, antzerki, kontzertu, kirol ekitaldi, tailer, ikuskizun, festa eta abarren berri emanen dugu agenda atalean.

Beste zerbitzu batzuk

Jendearen interesekoa delakoan, beste hainbat zerbitzu ere eskaintzen ditu agerkari digital berriak. "Zorion agurrak" deritzona da horietako bat. Atal honetan zure ingurukoak zoriontzeko aukera izanen duzu, haien urtebetetzea delako, haien ezkontza zein urteurrenen bat. Bestetik, "eskelak" atala ere izanen dugu, familian hildako norbaiten berri eman nahi baduzu bertan. Eta, hirugarrenik, "Zure iragarkiak" atala dugu, sale-rosketak argitaratzeko tokia izanen dena. Bertan etxebizitzak, autoak, lursailak, tresneria eta abar saldu zein erosteko iragarkiak argitaratzen ahal dituzue.



Komunitatea: herritarren parte-hartzerako tresna

Komunitatea eratzea da agerkari digital honen helburua, herritarrok izan behar zarete berri-emaile, zeuon komunikabidea da hau.

Horregatik, parte hartzeko hainbat modu dituzue, hemen azalduko dizkizuegu:

Egin zaitez kide!

Erraza da amezti.eus komunitateko kide egitea. "Izena eman" sakatuz zure erabiltzailea sortuko duzu erabat debalde noski. Hori edukita, zuk zeuk sortzen ahal duzu edukia. Zure herrian gertatzen denaren berri ematen ahal diozu irakurle orori, albiste, testu labur, argazki, argazki-bilduma, bideo edo audio bidez.

Kideak bi eratakoak izanen dira:

a) Pertsonak: Edozein pertsonak sortzen ahal du erabiltzaile bat, eta agerkari digitalaren informatzaile izan. Eta albiste zein agendarako edukia igo ahalko duzu webgunera.

b) Eragileak: Eragile sozial, kultural, politiko, kirol talde, musika talde, elkarte gastronomiko, ostatu edo beste edozein kolektibo izatenn ahal da komunitatearen parte, hauek ere nahi duten edukia igotzeko. Eragile guztiei egiten diegu komunitateko kide izateko deia, agerkari digitala haien ahotsa eta bozgorailu izan dadin.



Parte-hartzeko beste modu batzuk

Beste bide batzuk ere izanen dituzu informazioa helarazteko. Teknologia ematen dizkigun aukerak baliatuz, posta elektronikoa bidez, telefonoz, whatsapp eta telegram bidez helarazten ahal dizkiguzu albiste, argazki, bideo zein audioak:

e-posta: info@amezti.eus

deiak, whatsapp, telegram: 689033000 eta 619643126

Sare sozialen bidez: Facebook, twitter eta youtube

Euskaraldiaren aurkezpena egin dute Aizarotzen



Ekainaren 22an izan zen eta Larraitz Amadoz, Euskaraldiaren koordinatzailea Nafarroan, ekimena azaldu zien Imotz eta Basaburuko bi-zilagunei. Besteak beste, Ahobizien eta Belarripres-ten eginkizunei buruz aritu ziren. Izan ere, euskaraz hitz egin eta ulertzeko gai direnak, ahobizi izango dira, eta bakarrik ulertu baina hitz egin ezin dutenak, belarriprest gisa emango dute izena. Irailatik aurrera

irekiko da epea apuntatzeko, orduan ere ahalduntze tailer bat egingo dute giroa berotzeko.

Gainera, bailarako udalerri guztiak atxikitu dira Euskaraldira, Pulunpe honetako azalean ikusi ahal den bezala. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra arte iraungo du Euskaraldia.

Giro onean ospatu zituzten Aizarozko pestak

Udaren hasierarekin, herrietako jaiak datoz eta Aizarozkoak izan dira egutegiari hasiera eman diotenak. Ekainaren 9an, larunbatekin, bota zuten txupinazoa, ordu 13:00etan. Baina 11:00etatik jarri ziren martxan ekintzak, kronoeskaladarekin. Korrika egiteko bi modalitate zeuden, motza, antenaraino; eta luzea, an-

tenatik haratago. Gero, sabela betetzeko ordua, bazkari autogestio-natua egin zen herri osoan zehar, etxe bakoitzak atera zuen kalera sukaldatutako zerbeit. Ondoren ginkana, txokolatea eta dantzaldia. Baita, noski, zezensuzkoa eta musika gauean jaiarekin jarraitzeko.

Igandean eman zitzaizen amaiera

pestei, ekintzaz beteriko egunarekin. Txipi-txapa lehiaketa egin zuten igerilekuan, bazkaria ostatuan eta afrikar dantza eta twerkinga dantzatu zuten frontoian. Gainera, Aralar Musika Eskolak kontzertua eskaini zuen. Bukatzeko, afari-merendu batekin eta, herriko garbiketarekin, noski, esan zioten agur jaiiei.





Ardo dastaketa literarioak Ultzamako liburutegian

Ekainaren 8an egin zuten lehendabizikoa eta, publikoak oso gustukoa izan zuenez, gehiago antolatuko dituztela esan digu liburuzainak. Ardoan eta literaturan bi aditu gonbidatu zituzten: Alberto Dito Pop the win Iruñeako ardotekaren arduraduna eta Carlos Ollo idazlea. Biak batera Deborahlibros Iruñeako liburu-dendan dagoeneko egindako dastaketa literarioa ekarri zuten Larraintzarrera.

Eleberri beltzeko hiru idazleri buruz hitz egin zuen Ollok, hain zuzen ere, Andrea Camilleri, George Simenon eta Alicia Gimenez Barletti buruz; hiruren nobelek gastronomia eta ardoarekin lotura baitaukate. Gainera, Ollok berak kaleratu berria du A la luz del vino, upeltegi batean kokatutako eleberri beltza. Idazleak istorioak kontatzen zituen bitartean, Alberto Dito ardoan adituak dastaketak egiten zituen, ardoen usaina eta zaporea aztertuz, eta ardoen ezaugarriak modu entretenigarri eta ulergarri batean



azaldu zizkien bildu ziren 15 pertsoneri. Siziliako, Frantziako eta Almansako (Albazete) hiru ardo ezezagunak aukeratu zituen dastaketarako.

Oso pozik agertu da liburuzaina ekintza berri honen emaitzarekin, hurbildu zen jendea oso gustura egon zela dio, eta horregatik, gehiago antolatuko dituztela baieztatu du.

34 urte eta gora doa Gartzarongo 34. pilota txapelketa abian da



Datuak ikaragarriak dira. Gartzarongo txapelketak geroz eta arrakasta handiagoa du, eta aurtengoa edizio paregabea izanen da: 246 bikote arituko dira, horietatik 52 bikote umeen mailakoak, beste 52 haurrak, 46 gaztetxoak, 4 neskak, 40 gazteak, eta 52 helduak.

Aurtengo berrikuntza emakumeen txapelketa izanen da. Aipatu bezala, 4 bikote ariko dira Gartzarongo pilotalekuan, Euskal Herriko hainbat txokotatik etorriak. Gainera, Bartzelonatik etorritako bikoteak ere izanen ditugu aurtengoan.

Txapelketa uztailaren 22tik aurrera, astebururo jokatu da Gartzarongo pilotalekuan.



Ederbidetik bizikleta martxa- rekin ospatu zuten Imozko eguna



Ekainaren 30ean ospatu genuen aurtengo Imozko eguna egun osoko programazioarekin. Txirrindula itzulia izan genuen goizeko lehen ekitaldi bezala, eta Basaburua aldera joan eta itzulia egin genuen, Ederbidearen ibilbidetik.

Latasako geltokian amaitu zen martxa, eta bertan Ederbidea proiektuaren aurkezpena egin zuen Imozko Udalak. Ondoren, bermuta eta bazkaria izan ziren, sukaldaritza topaketetako lagunek prestatuta.

Bazkalostean musikaren tarte iritsi zen, lehenik euskal musikarekin, eta ondoren zeltiar estiloko musika joatzen zuen taldea izan genuen. Eta ordu txikiak arte DJ Sergio aritu zen giro polita jartzen.

Egunean zehar artisauen postuak ere izan ziren, eta txikiendako puzgarriak.

Zapa.

Argia izan zuen gai na- gusitzat Ohianzabal ikastetxeko D egunak



Urtero artea eta kulturarekin zerikusirik duen gai nagusi bat aukeratzen dute guraso eta irakasleek, eta horren inguruan ekintza, joku eta lantegiak antolatzen dituzte egun horretarako. Zinema, zirkua, irratia edota naturaren artea landu dituzte aurreko urteetan, esate baterako. Helburua, modu berezi batean ikastea da, esperimentazioa eta jokua bidez, ikasleak protagonista bihurtuz.

Aurten, 10 urte betetzen duten honetan, argia izan da aukeratutako gaia eta mota askotariko ekintzak egin zituzten: argiekin dantza; ipuin kontakizunak, haurrek egindako marrazkien diapositibak proiektatuz; argiez osatutako labirintoa zeharkatu, basoen soinuak jarraituz; antzerkia argien bidez, fluoreszenteekin malabare eszenak sortuz; argiekin marraztu zuten, esku-argiekin eta itzalekin jostatuz.

“Oso gustura pasa genuen eguna, txikiek pila bat eskertzen dute horrelako ekintzaz betetako eguna ospatzea, eta ilusio handiaz gogoratzen dute gero”, Ihabengo Mikel Loinaz Salak dioenez.



Ikaztobia berreskuratu zuten Gaztanberaren Egunaren IX. edizioan

Eltzaburun ospatu zen ekainaren 10ean, eta bigarren aldiz Ikaztobia berreskuratu zuten, izan ere, bederatzi edizioen artean bitan bakarrik piztu dute ikaztobia. Gainera, ohitura den bezala, Migueleko Bentako Patxi Larrainzarrek eta Ultzamako Bentako Tasio Díez de Ultzurronek, mamia egin zuten momentuan bertan, an-

tzinako erara. Aldi berean, helduek haurrei ahuntzak nola jetzi erakutsi zieten, eta baita ardiak nola mutildu. Eltzabun 30 salmahai ere bildu ziren, tokiko produktuez beteta. Eta dantza eta musikaz gozatu ahal izan zuten bertara hurbildu zirenak.



Basaburuko lehenbiziko Rogaine lasterketa egin zuten

Nafarroa mailako orientazio proba honek Basaburua izan zuen eszenatoki. Ekainaren 30ean izan zen lasterketa, eta 74 talde aritu ziren Aizarozko pilotalekuan hasi zen lasterketa honetan. Basaburuko hiru talde izan ziren parte hartu zutenak.

Parte-hartzaileek mapa bat eta brujula bat baino ez zituzten aurkitu beharreko puntuetara joateko. Mendian hinbat baliza izkutatuta zituzten, eta horiek aurkituta puntuak eskuratzen zituzten, geroz eta gehiago aurkituta, orduan eta puntu gehiago. Basaburuko errepide ngusiaren iparraldera, eta Beruetara bideko zein Olara bideko errepideek mugak markatzen zituzten, horien tartean kokatzen zen gunea. Bi lasterketa izan ziren, 3 ordukoa bata eta 6 ordukoa bestea. Basaburuko hiru bikoteak lasterketa laburrean aritu ziren, eta lan txukuna egin zuten. Proba bukatzean bazkaria egin zuten denek Aizarozko pilotalekuan.





Latasako geltokia kudeatzeko esleipena irekia dago

Baldintzak jakiteko Imozko Udaletxean eskatu behar da plegua, baita eskaera orria ere. Eskaera eta eskatzen den dokumentazioa udal erregistroan aurkeztu beharko da uztailaren 17an, 13:00ak baino lehen. Gogoratu udaletxea astelehenetik ostiralera bitarte dagoela irekia, 10:00etatik 14:00ak arte.



Martxan da abeltzainendako bulego birtuala

Abeltzainek, haien ustiatzeki eskaintzen dituzten administrazio lanak egiteko, tresna bat jarri du martxan Nafarroako Gobernuak, Abeltzainendako Bulego Birtuala.

Honako kudeaketa hauek egin daitezke: azienaren mugimendurako gidak eskatzea eta inprimatzea; ustiapenaren abelburuen liburuak lortzea; alten eta bajen liburuak lortzea; jaiotzen berri ematea; behi-azienden identifikazio-dokumentuak inprimatzea; abelburitako eta identifikagarrien kopiak eskatzea; abelburuan sarrera baieztatzea; erroldak eguneratzea; Abeltzaintza Zerbitzuaren mezuei eta ohartarazpenei buruzko informazioa jasotzea (laguntzen ordainketa, saneamenduaren emaitzak, eta abar); eta informazioa Excel fitxategi batera esportatzea.



Iritzia: "Besta, aske"

Gogoan dut nola artean nerabeak ginela, sexu harremanekin kontuz ibiltzeko erraten ziguten. Haurdun gelditzen ahal ginela, edo eritasun arriskutsuak harrrapatu: hiesa, sifilisa... Gerora jakin genuen sexua hori baino gehiago ere (eta bereziki) bazela, eta esker-errak! Baina mamu hark

gibetik begiratzen zigun aldi oro, «kontuz, gaiztakeriatan ari zara» erranez bezala.

Zorionez, ez dut sekula entzun behar izan ez ateratzeko gona motzarekin etxetik, ezta kasu emateko bestaz nola eta norekin egiten dudan dantza. Baina izanen dira, ziur, etxean halakoak entzun beharko dituztenak, euren anaia mutilei gehienez ere txintxo ibiltzeko erranen dieten bitartean. Eta eraso sexisten harira zabaltzen dituzten zenbait mezu ere badute horretatik. «Kontuz Iruñeko Sanferminekin, eraso egingo dizute eta». «Kontuz zer

edaten duzun, agian burundanga botako dizute». «Ez bueltatu bakarrik etxera»... Eta hemendik gutxira erranen digute etxean gelditzeko hobe, ea tupust egingen dugun paretaren kontra.

Mezu guztiok, baina, gibelean dute eraso guztiak elkarren artean nahastea. Iruñeko Sanferminetan kontuz ibiltzeko erraten dizuna ez baita ohartzen erasoak berdina jasan ditzaitezula itxuraz oso sanoak diruditen herri txikiak bestetan. Eta Iruñean eta bertze lekuetan ere, mota guztietako erasoak egunerokoak direla; eta ikusezina. Umetan gutaz abusat-

zen dutenetik, nerabetan ipurdia ukitzen diguteneraino, eta edozein barra ertzetan entzun behar ditugun iruzkin lizunetatik, tamalez, bortxaketaraino. Baina ez bakarrik.

Horrek ezin digu kendu bestak aske bizitzeko eskubidea, ordea; alderantziz: eraso horien guztien aurrean egoki ikusten dugun moduan erantzuteko ziletasuna eman beharko liguke, eta hala egingen dugu, aurrean ere. Baina ez bakarrik iazko bortxaketatik, egunero eta bestarok jasaten ditugunengatik baizik. Parrandan eta aske ikusiko dugu elkar.



Maddi Ane Txoperena
BERRIA egunkarian



Made in Basaburua / Basaburuan eginda

"Gaur egungo ehungintza kriston munstroa da. Arropa behin erabiltzeko produktua bihurtu dugu"

Maitane Bandres Nuin 37 urte ditu eta Aizarotzen bizi da. Gurasoak bezala, Iruñean jaio zen, amona gaztetan hirira lanera joan baitzen. Baina Udabekoa zuen amona, Borbonea etxekoa. Orain amonaren bailarara itzuli da Maitane eta bera bezala, josten hasi da. Nahiz eta autoeskola batean lan egin eta hezitzailea izateko ikasi, betidanik eskulanetan trebea, alaba jaio zenean josteari ekin zion. 7 urte igaro dira eta orain bere marka propioa sortu du: Chaika.



"Alabak asko laguntzen nau, bere gustuen arabera aukeratzen ditut diseinu asko. Nire proiektuaren oinarria bera da"

Chaika izena nola bururatu zitzaizun?

Oso zaila izan zen izena aukeratzea. Argi nuen haurrekin zerikusirik izan behar zuela, dibertigarria izan behar zuela. Baita emakumeekin, azkenean nire inspirazioa nire alaba da, ni emakume bat naiz, amona josten zuen, nire bikotekidearen amak utzi zidan josteko makina, emakume asko izan ditut inguruan. Hortik pirata emakumeen izenak bilatzea etorri zitzaidan burura, baina izenak itsusiak ziren (barrezka); Orduan espazioarekin lotura zuen izenen bat bilatzea bururatu zitzaidan, umeei asko gustatzen zaielako, eta espaziora bidaiatu zuen lehendabiziko emakumearen izena bilatu nuen. Valentina Tereskova deitzen zen, baina espedizioaren izena Chaika zen, eta horregatik nire logoa espazio-ontzia da.

Nola hasi zinen arropa diseinatzen?

Betidanik sortzea eta eskulanak egitea gustukoa izan dut, txikitatik. Nare, nire alaba, jaio zenean, arropa erosten hasi ginean, dermatitisarekin hasi zen. Orduan oihal ekologikoekin egindako arropak bilatzen hasi behar izan genuen eta interneten jende askok euren arropa egiten zutela ikusi nuen. Beti gustukoa izan dudana arlo bat izan denez, ni neu ere saiatu nintzen. Tutorialen bidez ikasiz eta eskuz egiten nituen hasieran eta geroago nire bikotekidearen amak makinarekin josten irakatsi zidan. "Nolatan ez dut lehenago probatu!" pentsatu nuen. Izugarri betetzen nau.

Haurrendako arropa egiten duzu, orduan?

Hasieran, bideo tutorialekin hasi nintzenean, motxilaren bat eta gauza errazak egiten nituen, orokorrean ona izan naiz beti eskulanetan eta ongi moldatzen nintzen. Baina zerbait

falta zitzaidan, ez bainekien patroiak egiten, adibidez. Orduan eskola batean ikasten hasi nintzen. Horrek asko lagundu dit oso zaila baita patroiak eta neurri guztiak egitea, eta hori ikasi gabe ezinezkoa da arropa ondo egitea. Bertan helduen arropa ere egin behar dugu, orduan neurri guztietako patroiak egiten ikasi dut, baina nik umeen arropa egitea da gehien atsegin dudana, dibertigarriagoa iruditzen zait.

Alabaren dermatitisarengatik hasi zinela esan duzu, oihal bereziak erabiltzen dituzu?

Bai, kalitatezko ziurtagiria edo ekotex ziurtagiria duten oihalak erabiltzen saiatzen naiz. Egia esanda, alabari dermatitisa kendu zitzaion denbora pasa ahala, eta orain berezia ez den arropa ere erabiltzen ahal du. Baina nire ustez garrantzitsua da sintetikoak diren materialak ez erabiltzea, batez ere polyster eta. Nik ez ditut inoiz erabiltzen halakoak, organikoak edo kalitate ziurtagiria dituztenak erabiltzen ditut beti.

Garestia izanen da horrelako arropa ekoiztea.

Bai, oso garestia da. Oihal merkeagoak aurkitzen ahal dira, baina kalitatezkoa izatea nahi baduzu...nik erosten ditudanak 20 euro balio dezakete metroko, eta soineko bat egiteko metro bat erabili behar da gutxi gora behera. Horri, gainera, makinak eta ikasketak gehitu behar zaizkio. Nik eginiko arropak merkeagotu egiten ditut, bestela...

Nola erosten ahal da zure arropa?

Horri bueltak ematen ari natzaiola eta etorkizunean webgune bat irekitzea gustatuko litzaidake. Baina oraingoz ez da posible, horregatik, momentuz lagun baten tailerrean ditut, berak ere arropa saltzen baitu bertan. Eta gero niri zuzenean ere erosten dizkirate. Azkenean inguruko jendea da gehien erosten didana, orduan badakite nor naizen eta non nagoen.

Egunen batean zure ogibidea izatea espero duzu?

Gustatuko litzaidake, baina errealista naiz aldi berean. Oso oso zaila da, gaur egungo ehungintza kriston munstroa baita. Arropa behin erabiltzeko produktua bihurtu dugu eta ezin duzu armairua bete nire arropaz, hori argi eta garbi,



Diseinuaren herrialdea

“Mendian nagoela, esate baterako, kolore edo irudi bereziren bat ikusi, eta ideiaren bat etortzen zait burura”

Unai Mendiburu Vigué 14 urte ditu eta Igoako Errotan bizi da. DBHko bigarren maila bukatu berri du Larraintzarko Ikastetxean, beraz, oraindik urte batzuk egin behar ditu bertan, baina diseinua edota ikus-entzunezkoekin zerikusia duen zerbait ikastea atsegingo luke handitzean. Izan ere, 10 urte zituela hasi zen berak asmatutako arropak josten.



Nola hasi zinen diseinu kontuekin?

10 urte nituela konturatu nintzen zinema kontuak oso gustukoak nituela, eta istorioak idazten hasi nintzen, pelikulak edo serieak egiteko helburuarekin. Nire lagunak antzeztzen zuten, eta nik grabatzen nituen; beraz, ni zuzentzaile moduan ibiltzen nintzen, eta lagunak aktore moduan. Orduan, erabili behar zituzten arropak diseinatzen hasi nintzen, pertsonaia bakoitzarentzat jantzi ezberdina, eta konturatu nintzen lan hori gustukoa nuela. Gainera, bestalde, marrazten ere hasi nintzen, eta marrazkiena ere gero eta gehiago atsegin nuela konturatu nintzen. Bi gauza bateratu eta arropak marrazteari ekin nion. Aldi berean jendeak ongi egiten nituela esaten zidan eta horrela jarraitu nuen. Orain ere bi gauzak uztartzen ditut, pelikulak egitea eta marraztea.

Eta ez dizu inork irakatsi? Zure kabuz ikasi duzu?

Ez, nik nire kabuz probatzen ikasi dut. Amak makinarekin josten irakatsi zidan, hori bai, baina diseinatzen ez dit inork irakatsi.

Nolakoa da arropa diseinatzeko eta egiteko prozesua? Nola egiten duzu?

Bi era ezberdinetan egiten dut. Adibidez, soinekoen kasuan lehenengo telak erosten ditut, gero diseinuaren marrazkia egiten dut eta bukatzeko makinarekin josi. Baina sudaderak eta kamisetak diseinatzeko, txuriak erosi eta eskuz margotzen ditut. Gero gainera trikimailuak erabiltzen ditut sudaderak eta kamisetak margotzeko; adibidez, silikona erabiltzen dut, horren gainean pintura botatzen dut, eta silikona kendu eta gero, marrazkia lortzen dut. Azkenik, programa informatiko bat ere erabiltzen dut, dena eskuz egitea ez baita erraza, gauza asko ezin ditut egin. Programak aukera ematen dizu arropa



nahi duzun bezala izateko, sudadera bat txanoarekin, nahi duzun kolorean, eta bertan diseinatu dezakezu nahi dituzun marrazkiak ere edota esaldiak gainean idatzi, eta abar.

Zerbait diseinatu nahi duzunean, bat-batean datorkizu inspirazioa?

Batzuetan zerbait ikusten dudanean bururatzen zait, mendian nagoela, esate baterako. Kolore edo irudi bereziren bat ikusi, eta ideiaren bat etortzen zait burura. Gero, ideia horri forma ematen diot, hobetu egiten dut. Beste batzuetan, mahaian jartzen naiz lanean, besterik gabe marrazten hasten naiz eta beti bururatzen zait zerbait.

Zuk diseinatutako arropak erosten ahal dira?


Bada, onlineko denda bat daukat. Baina adin txikikoa naizenez ezin dut kreditu txartelarekin ordaintzeko aukerarik eman. Horregatik, bertan nire kontaktua ipini dut. Baina ez da zaila, bertan ikusten ahal da diseinua, prezioa eta informazio guztia; eta zerbait erosi nahi duenak nirekin kontaktatu, posta kodea eman eta nik bidaltzen diot; ordaintzeko eskuz edota transferentziaren bidez. Baina oraindik ezin izan dut webgunea guztiz irekia argitaratu, hori dela eta jende ezagunari saltzen diot momentuz. UM-DESIGN da dendaren izena, eta instagramen: @fashions.um

Bitartean zinemarekin ere jarraitzen duzu?

Bai, orain telesail bat egiten ari naiz, efektu bereziekin eta guzti, zientzia-fikzioa atsegin baitut gehien. Baina ez da erreza, eszenatokiak egin behar ditut, ordenagailuarekin, lagunei antzezteak eskatzen diet, grabatzen diet eta gero editatzen dut.

**Gaztanberaren eguneko
argazkiak
Eltzaburun, maiatzaren 10ean**







Juanito Eleta eta Kontxi Villabona (I)

Juanito Eleta eta Kontxita Villabona, olaguearrak dira, Eletaeneko jabeak. Olaguerrak diogu, baina berez ultzamarrak dira Olaguera etorriak bizitzera joan den aspaldian. Juanito, arraiztarra, zurgina izandakoa dugu, orain jubilaturik bizi dena eta andrea, Kontxita Villabona Mezkitz, Gerendiango alaba. Juanito 1928a jaioa eta Kontxita 1936an. Ongietorri txeratsua egin digute Olaguen.

Hizketan, lehenik zaharrenarekin hasi gara, hau da, Juanitorekin, eta hona elkarrizketa honek eman diguna:

Nor ziren zure gurasoak?

Pablo Eleta eta Regina Larraiotz. Pablo Larraintzarko *Eletaren* etxea deitzen denekoa eta Regina, ama, berriz, *Mikelarneko maistarrretxekoa*. Etxe hau, gure aitatxi Pedro Larraiotzek eresia izaten da. Pedro hau Latasa-Odietakoa zen sortzez eta hiru ume izan zituen, bi alaba eta seme bat.

Erran ieza dazu zure gurasoez zer bait?

Gure gurasoak, ezkondu zirenean, Arraizko ur saltoko zentralean hasi ziren lanean eta bizi ere bertan zen etxean. *Ulzamesa* zuen izena. Bertako ur saltoa kudeatu eta makineria prest eduki, hori zen beren egin beharra. Jakina, aita aritzen zen gehienbat lan horietan, eta hori bai, Arraizko argiaren sariak ere kobratzen zituen etxez etxe.

Gainerako herrietan nor ibiltzen zen kobratzen?

Nik gogoan dudana Angel Garcia da, Iraizozkoa.

Bertze lanen batean edo aritzen zen zer bait?

Bai, zurgingoan aritzen zen zer bait: eskuareak, sega giderrak, sega po-toak ...pezta batzuk atera behar; badakizu, bederatzi senide ginen eta ekin beharra zegoen! Nahiz eta erran behar mutikook kozkortu orduko han eta hemen enplegatzen gintuztela!

Zentrala norena zen?

Zentrala? Bizpahiru sozio ziren, bat Lizasoko *Antsone* eta bertzea berriz Auzako *Pollone*. Ez dakit bertzerik bazen. Administrazio lanetan Cesareo Goñi aritzen zen, Etxauriko semea baina Lizason bizi



zena.

Zentralak nori ematen zion argi-indarra?

Ultzama guziari eta Basaburu gehienari nik uste.

Ultzamesaren saltoa ttiki samarra izan behar zuen noski.

Hasieran nahikoa eta sobera, baina gero bizitzetan etxetresna elektrikoak eta sartzen hasi zirenean oso eskasa gelditu zen. Eskarioa aunitz handitu zen eta eskaintza beti bezala egotean ezina gertatu zen. Ura aski ez eta udetan egunero geldialdiak, eta Iberdueratik atxiki zuten indarra horrelako momentuetan eranstea.

Hala ere luze gabe Ulzamesak utzi eta Iberduero sartu zen erabat.

HAURTZAROA

Zenbat senide izan zineten?

Bederatzi, zaharrenetik gazteenera: Maritxu, Francisca, Juan Pablo, Francisco Javier, Jesus Mari, Petra, Araceli, David eta Consuelo, 1926-1941 bitartean jaioak denak.

Eskola zuen etxetik urrut.

Bai, Arraizko eskoletara joaten ginen, 3 kilometro edo gehiagora, oinez, eltzaria hartu eta egun guzira. Amak jartzen ziguna jateko, eltzaria edo..., *Albinera* joaten ginen. Eta etxera itzultzen ginenean, amak han edukiko zigun aza patatekin prestatua, edo bertze zer bait.

Arraizko eskolan maistru eta maistra izaten ziren garai hartan, bat mutikoendako eta bertzea neskatoendako. Haur aunitz izaten zen, Arraitz, Orkin eta Bentetan.

Baduzu gogoan eskolako konturen bat? Orduan maisuak aunitz jotzen zuten.

Bai, bai, gureak behintzat jotzen zuen. Mutikoen belarriak tapatzen zituzten eskuekin baina nik ez. Jo behar

badu jo dezala!

Egun batez astinaldi ederra hartu nuen. Atzean nituen mutikoak irriz, eta maisuak galdetu zien:

-Irriz? Zergatik egiten duzue irri?

-Eletak belarriak mugitu dituelakoz.

-A bai? Honi erakutsiko diot!

Eta izugarrizko astinaldia eman zidan eta nire lagunak berriz ere irriz nire kontura.

Hola zen orduan, tokatzen zitzaionak hartu, eta gainerakoak irri!

Nor zenuten maisua?

Orosio Armendaritz; maistru hori bakarrik izan nuen nik, 6 urtetarik 14 urteak artio.

Aunitz ikasiko zenuen 14 urteak artio ibili eta.

Aunitz? Orduan ez zen orain bezala ikasten. Nik orain ikusten dut aunitzez zailago diren gauzak ikasten dituztela. Orduan inportanteena irakurtzen eta idazten ikastea izaten zen. Ba, gero, matematikako operazio printzipalenak: batuketa, kenketa, biderketa eta zatike-





ta.

Bertze gauza franko ere erakusten ziren, historia sakratua, gramatika...
Bai, hori bai, historia sakratua. Eta doktrina ere bai.
Doktrina apezak ematen zigun, Juan Saralegik.

Apezak ere jotzen zuen?

Bai, apezak ere bai. Eta honek makilak egina-
razten zizkigun gu jotzeko. Eta guk egin, baina
baratxuriz igurzten genizkion, errazago hauts
zitezen.

*Harrigarria da nolako naturaltasunez mintzatzen den Juanito kontu hauetaz, ez dio marka ttikiena ere utzi hartutako ultziek, ezta ttikiena ere!
Haurrak jotzea dela eta, bere gurasoez galdetu diogu ea nolakoak ziren, ea maistruaren modukoak ote ziren edo. Eta ez, behin bertzerik ez zuela
jo aitak, ez du gehiagoko oroitzapenik. Eta orduan ongi merezita hartu omen zuen. Guraso lasaiak zituen dirudienez.
Iraolak, Arraizko bentakoak, behorra bere pottokoarekin omen zuen soroan eta gure protagonista eta Estankoko Joxe han egokitu, eta zer
gogoratuko eta pottokoa amarengandik bereizi behar zutela.
Eta behorrak, ikaraturik, ugaldera egin omen zuen salto; eta beherago putzu bat eta hara erori omen zen hortzen bat hautsiz. Hurrengo igandean
aita mezara eta bertan ikasi zuen gertatutakoa.
Etixeratzerakoan galdetu omen zion zer ibili ziren eta orduan eman omen zion ultzia, ez du gehiagoko oroitzapen txarrik. Erran duguna, guraso
lasaiak zituen Juanitok.*

EHIZA, ARRANTZA ETA URDAIA

Kartutxoak egiten omen zenituzten Eletatarren etxean.

Bai, nork kontatu dizu? Bai, kartutxoak egiten zituen
aitak eta nik ere bai, baina etxerako.
Bolbora eta perdigoiak erosi, eta oihanean, uso postue-
tan-eta ehiztariak uzten zituzten erabilitako kartutxoak
bildu eta horiek berriz betetzen genituen bolboraz eta
perdigoiez. Eta makinatxo batekin hertsitzen genuen
kartutxoa. Hori bai, pistona ere aldatu behar izaten zen.

Ehiztari onak izanen zineten zuek, oihanaren erdian bizirik...

Onak? Garai hartan ez zen ehiza-zaintzailerik izaten
eta lasai joan zintezkeen ehizara. Malkor aldera joan eta
beti izaten zen ehiza: ixkixua, zozoa, kattagorriren bat,
beti izaten zen zerbait. Usoak... eta erbiak, batez ere
elurra egiten zuenean.
Jan beharra zegoen!

Ehiza aunitz jaten zenuten?

Aunitz? Ia-ia hori izaten zen jaten genuen haragi baka-
rra!

Txerririk ez al zenuten hiltzen ba?

Bai, bai, txerriren bat hiltzen genuen urtero. Edo bi.

Txerri hiltzailereren bat beharko zenuten.

Bai, Arraizko Bentetakoren bat etortzen zen. Eta urte
aunitzez Jose Andres, Orkingo *Bolonekoa*. Oroitzen
naiz, ttikia nintzenean, Jose Andresek txerria hil zuen
egunean, banuela erregalatutako kartoizko zaldiko bat,
eta zerria nola puskatu zuen ikusi bainuen, ba nik kartoi-
zko zaldikoarekin gauza bera egin nuela. Nik horrelako
erregaloea izaki, eta puskatu inor ohartzen ez zela!

Horixe, horrelako erregaloea ez zen gauza arrunta!

Ez, hala ere bertze behin gezurrezko pistola bat errega-

latu zidaten. Izugarrizko ilusioa egin zidan!

Arrantzarako ere zuen etxea ez dago toki txarrean! Leihotik harrapatuko zenituen amuarrainak!

Ja, ja! Kanaberarekin batzuetan eta eskuz aunitzetan.
Gauetz ere joaten ginen arrantzara, karbueroarekin argi
eginez. Ugalde hartan amuarraina soilik izaten zen. Ez
zen beste arrainik, langostarik ere ez.



Arraizko herria, beheitiko landatik ikusita



Arraizko eliza. Ezkil dorrea, gain-gainean bere ezkila ttikia agerian duela.

HIZTEGIA

txeratsu: cariñoso

Kudeatu: manejar

Eskario=Eskari (hemengo hitza)

Eltzari=Potaje (hemengo hitza)

Batuketa, kenketa, biderketa, zatiketa: suma, resta, multiplicación, división.

Ultzi=eultzti: trilla. Baina astindua edo jipoia bezala ere erabiltzen

da (hemengo hitza)

Ehiza-zaintzailea: guarda de caza

1.ko OHARRA: Hemengo hitzak direla eta, ez du esanahi batukoak ez direnik.

2. OHARRA: Kozkortu: Kozkortu Zrekin jarri dugu, nahiz batuan KoSkortu den.

Hain ongi bereizten ditugu Zetan eta eSeak! Oso gogorra egiten zaigu kasu bakarren batean, ez da horrela, esaten digutenean.



ARDO FREXKOTIK

Moxkortuko ote dira Felipe eta Anizeto?

Ostatuan ari dira Felipe eta Anizeto adiskideak, ardo frexko edatera joan baitira. Felipe kisuskila da. Lanez eta nagusiz aldatu berria.

Nagusiarekin batean etxe bat zuritzen ari da besta aurrettoan. Eta besten aurretik bukatu nahi lana.



Horrela ari ziren:

-Gaur asko eginen zenuten! -Anizetok

-Askok? **Zerbait**. Hasi bertzerik ez gaituk egin-eta!

Oso-oso gutxi, pittin bat! -Felipek

-Dena dela atsotitzak dioena: Hasiak egina zirudik....

-Bai, hala beharko dik. Esaldi hori, dena dela, gure amatxik beste horrela erraten zian: *Hasiak egina dirudi, eta eginak urre gorria*. Ea noiz dugun urre gorria!!!

-Aste honetan bukatzeko gaizki **samar** ibili behar duzue ba.

-Hala zirudik. Gainera lan astun **xamarra** duk.

-Ez zaik damutu lanez aldatzea?

-Ez, ez, nagusia alu **antza** duk baina...zer eginen diagu? Eutsi!

-**Aluxkoa** zela aditzea banian, bai.

-**Aluxkoa**? Alu ederra bai!

-Felipe, to ardo **xorta** bat.

-Bai, baina ogi-**mokadu** bat janen bagenu hobe! Ardo hau bixkor **xamarra** zegok eta!

Ekaitzek nobleki dio pixko bat besterik ez dela

Jon Patxik ezkerrez dio baietz, hala dela.

Oihan ez dago oso ados, pittin bat besterik ez dela baitio.

Gaurko jendeari entzun eta horrelatsu entzunen genieke:

-Gaur asko eginen zenuten! -Arkaitzek

-Askok? **Pixko bat**. Hasi bertzerik ez gaituk egin-eta!

Oso-oso gutxi, pixko bat! -Iñakik.

-Aste honetan bukatzeko **pixko bat** gaizki ibili behar duzue.

-Hala zirudik. Gainera lana **pixko bat** astuna duk.

-Ez zaik damutu lanez aldatzea?

-Ez, ez, nagusia **pixko bat** alua duk baina...zer egin behar diagu? Eutsi!

-**Pixko bat alua** zela aditzea banian, bai.

-**Pixko bat alua**? Alu ederra bai!

-Iñaki, to ardo **pixko bat**.

-Bai, baina ogi **pixko bat** janen bagenu hobe! Ardo hau **pixko bat** bixkorra zegok eta!

Moxkortuko ote dira Iñaki eta Arkaitz ostatuan? Moxkortu ez dakit baina elkar nazkatuko dute hainbertze **pixko** eta **pixkondokin**. Benetan gure hizkuntza erreka botatzen ari gara!

OHARRA: Azpimarratu ditudan esaldi guzi horiek, gramatikalki oso-oso okerrak dira, erdararen kalkoak. Felipe eta Anizetok erraten duten bezala beharko lukete.

Pixkoren beste sinonimo batzuk:

Apur (Bizkaia aldean)

Amiñi (Zuberoa aldean ibiltzen da)

Pittin (Hemen ibiltzen da)

Pitta (Baztan aldean eta toki gehiagotan)

Xorta (edariekin ibiltzen da)

Poxi (Iparraldean ibiltzen da)



Amaitu da Erkametz dantza taldearen ibilbidea



2012an jaio zen Erkametz dantza taldea. Josu Beaumont espetxetik atera zenean egin zuten lehenengo dantza erakustaldia, eta geroztik aritu dira Basaburua, Imotz eta Ultzamako plazetan bereziki dantzan.

Gazte ugari hasi ziren lehenengo urtean, eta Aizarozko Maitane Bandres izan zen hasierako irakaslea. Gartzarongo gazteek kopurua igo zuten, herriko festetan ikuskizun bat egiteko asmotan. Neska eta mutil ugari izan ziren, baina festak amaituta, taldea utzi zuten mutil guztiek.



Hasierako hiru urteak eman zituen Maitane Bandresek irakasle bezala. Baina berak ere zailtasunak izan zituen, eta ezin izan zuen jarraitu. Eskualdetik kanpo bilatu behar izan zuten irakaslea, eta Marikruz izan zen azken hiru urteetan dantzak irakasten aritu zena.

Dantza talde bat baino gehiago izan da Erkametz, eskualdeko gazteen elkargunea izan da, elkargune euskalduna gainera. Imotz, Basaburua

eta Ultzamako gazte ugari aritu dira, 13 urtetatik 30 baino gehiagorako tartean, eta harreman polita egin dutela aipatu digute denek.

Aipatu gabe ezin utzi taldeak laguntzaile izan dituen musikariak. Iraizozko Asier Larretxea eta Igoako Leontzio izan dira azkenaldi honetako musikariak, baina Leo, Unai izan ziren hasierako laguntzaileak, Barbajeroren laguntzarekin batera.

Gutxika gutxika, taldeari forma eman zioten. Marikruz iritsitakoan etorri ziren aldaketa gehien, irudiarri garrantzia emanez bereziki, eta jantzi berriak egin zituzten.

Herriz herri eta plazaz plaza aritu dira festak alaitzen, baina azken urtean biltzeko zailtasunak izan ondoren, ibilbidearen amaierara iritsi da taldea, datozen belaunaldiak lekukoa hartzeko esperantzarekin.



ETXEPARE SARIA 2018: 'COSIMOREN KATIUSKAK', DANI MARTIRENA ETA ANA IBAÑEZ

"Autoekoizpenean arnasa gorde behar duzu biriketan, ausardia aurkitu eta esan: ez du inork niregan sinisten, nik bai, apal txiki bat eskainiko diozue liburu txiki honi?"

Etxepare saria eskuratu dute Erasoko bizilagunak diren Dani Martirena kazetariak eta Ana Ibañez ilustratzaileak, Cosimoren Katiuskak euren hirugarren lanarekin. Aurkezten diren bosgarren aldian lortu dute, asmoz azken saiakera zen honetan. Hankaz gora du amak mundua eta Jonek Jone izan nahi du autoekoiztutako lanen ondoren, Pamielak argitaratuko du Cosimoren Katiuskak. Beraz, ezberdintasuna nabaritutako dutela onartzen dute, argitaletxe batek babestuta. Banaketan, esate baterako, 500 ale argitaratuzetik, 1500 inprimatuko dituzte. Hala ere, nahiz eta saririk ez, aurreko bi lanek ere bide luzea egitea lortu zuten. Kritika onak jaso zituzten Gara egunkarian, eta Kultura Ministerioaren pean dagoen OEPLI erakundeak, euskarazko 20 liburu onenen zerrendan gehitu zuen Jonek Jone izan nahi du. Udazkenean egongo da liburu-dendetan Cosimoren Katiuskak.



Helburua lortu duzuen sentsazioa daukazue? Hala idazterakoan ez duzue sarietan pentsatzen?

ANA: nik behintzat, lan egiterakoan, data bat eta epe bat izatea behar dut, bestela egunerokotasunak denbora jan egiten du. Sariak data bat ipintzen dizute helburu, eta modu horretan ez luzatzera behartzen zaituzte. Cosimoren katiuskak aurretik bi liburu ekoiztu ditugu gure kabuz, horiek ere Etxepare sarira aurkeztu genituen eta ez zuten irabazi. Baina modu horretan sarira aurkezteko bukatu eta behin bukatuta, argitaratzea erabaki genuen.

DANI: Esan dezakegu sariak proiektua amaitzen laguntzen gaituela. Helburua, berez, ez da saria, ez dugu sentitzen saririk gabe ezer ez dagoenik. Proiektua amaitzen dugu, eta gero saritzen duten edo ez, hori ez da garrantzitsuenak. Azken finean sarietan bat bakarrik irabazi dezake, honetan gu izan gara hautatuak, baina bidean ziur aski beste hamaika geratu dira saria ere merezi zutenak. Horretan guztiz sinetsita gaude.

Aurrekoak argitaratzeko autoekoizpenaz baliatu zineten, honetan Pamielak egingo du. Nolako da ekoizpenaren egoera?

DANI: Ni harritu nintzen jabetu nintzen hain zaila zela argitaletxeen bitartez argitaratzea. Autoekoizpenak badu gozotik eta ozpinetik: zuk egindako zerbait bat-batean liburu esku artean hartzen duzunean, izugarri polita da; baina gerora zuk egin behar duzu guztia, eta, nahiz eta zuk sinetsi liburu polita dela eta pena merezi duela, zure iritzia besterik ez da, ez duzu argitaletxe baten babesa. Orduan joaten zarenean, berdin zait, Elkar-era edo Katakarak-era arnasa gorde behar duzu biriketan, ausardia aurkitu eta esan "begira ez du inork niregan sinisten, nik bai, apal txiki bat eskainiko diozue liburu txiki honi?". Orduan, erronka badu, baina ez da batere xamurra. Cosimoren katiuskak-en bidea beste bat izango da, Pamileak defendatuko du.

Nola egiten duzue lan? testua eta ilustrazioa nola integratzen duzue?

DANI: gure kasuan beti lehendabizi testua doa. Euskaraz idazten dut eta gero behin eta berriz irakurtzen diot Anari, berak testuaren musika antzeman dezan. Gero, euskaratik gaztelerara itzultzen dut Anak zentzu osoa ulertu dezan, ohar askorekin, euskara askotan oso zehatza delako eta badaude gazteleraz zentzu bera ez duten hitzak. Esate baterako, etxe orratzari “rascacielos” esaten zaio gazteleraz, baina itzulpen zehatza “casa-aguja” izango litzateke. Bada, lan hori egiten dut, Anak zentzu guzti horiek ikusteko. Gero, Anak bere irudiak aurreratzen dituenean, horiek ere testuari eragiten diote.

ANA: Hau da, joan-etorri askotako lana izaten da. Horregatik, oso zaila iruditzen zait elkarren artean ezagutu gabe lan egiten duten idazle eta ilustratzaileen lana. Gure artean ideiak elkarbanatzen ditugu, eztabaidak izaten ditugu..., prozesu guztian zehar bata besteari elkar eragiten diogu.

Euskal idazle eta ilustratzaileen maila ondo erakusten duen lana dela dio epaimahaiak, erantzukizuna sentitzen duzue?

DANI: Erantzukizuna ez, sari honek ez gaituelako kokatzen euskal literaturaren plazan. Baina epaimahaiak hartutako erabakiak eta iritziak indartsuak egin zaizkigu. Adibidez, momentu hartan ez nintzen ohartu; baina, geroago berriz irakurri dudanean, edertasunaren aldarria egiten dugula dio; bada, titular biribila iruditzen zait eta horrek beldurra ere ematen dizu. Ausarta ere aipatzen da, eta niri iruditzen zait batez ere Anaren ilustrazioak direla ausartak. Testuak badu borondatez bilatutako kaosa; ez du hasiera bat, korapilo bat eta bukaera bat; hasierak baditu, korapiloak baditu eta bukaerak baditu. Subrealismotik gertu dagoen lana ere izan ahal da kontakizuna. Ez dakit hortik doazen epaimahaiaren iritziak.

Zuen buruak ikusten dituzue epaimahaiaren iritzietan?

ANA: beti harritzen zaituzte zure lanari buruzko gaitzerekoen iritziek. Baina hori da politena, jendeak zure lanari buruz hausnartzea. Artearekin bezala gertatzen da, erakusketa batean guztiok ari gara gauza bera begiratzen eta bakoitzak oso ezberdin ikusten du.

Goazen kontakizunera, Cosimo zuhaitz batean dago eta bertan parkean gertatzen dena ikusten du, zer ikusten du, eta atsegin al du ikusten duena?

DANI: Cosimok hiriko parkerik txikiena ikusten du. Bertan hainbat lagun ikusten ditu: liburuak irakurtzen duen emakume bat; bikote bat elkarri muxuka; etxerik gabeko gizon bat, parkean esertzeko banku batean lo egiten duena. Ikusten duen guzti horren bidez,



parkean bakarrik ez, hirian gertatzen den guztiari buruzko hausnarketa egiten du Cosimok. Zeren hiriak parkea irentsiko du, desagertzekoa da parkea, banku bat eraiki behar dutelako bertan, ez esertzeko bankua, baizik eta dirua gordetzeko bankua. Baina hain du maite Cosimok hiriko parkerik txikiena, defendatuko duela.

Haurrendako liburuetan, mezua ez dago umeei bakarrik zuzenduta, ezta?

ANA: helduendako literaturan bezala, gatazkei buruz hitz egiten dute, errealitateari buruz hitz gutxiagorekin egitean datza ezberdintasuna, eta irudiek ere hitz egiten dute. Azkenean, liburu guztiek izaten ahal dute mezu sakonago bat. Ilustrazioaren aldetik ere, irudiarekin soilik egunerokotasunari buruzko mezu indartsuak bidaltzen ahal dituzu.

Nola bururatu zitzaizuen parkearen abiapuntua?

ANA: Askotan hirietan denbora pasa eta gero itzultzen zara eta bat-batean ohartzen zara izugarri aldatu dela. Nik gogoratzen dut eskolara joaten nintzenean plaza txiki bat zegoela bidean, erdi baztertua, eta zuhaitz bat zuen soka batekin, bertan egoten ginen, ia berandu iristen ginen eskolara eta guzti. Horrelako eremuak jada ez dituzu aurkitzen, dena dago kontrolpean, parkeak modu zehatz batekoak izan behar dira.

DANI: Agian hitz polisemikoetatik hartu nuen abiapuntua, oso iradokitzaileak iruditzen baitzaizkit, bankua esertzeko edota dirua gordetzeko, esate baterako. Gero, parkea mikromundu izanik, kanpoko ispilua izaten ahal da. Hala ere, ez dakit noraino abiatuko den testua. Protagonistek bizia hartzen dute, zuk hau esatea nahi duzu baina ez dute hori esaten, beste gauza batzuk baizik. Cosimoren kasuan, adibidez, beste bukaera bat eman genion hasieran, pessimistagoa, aldarrikapen gutxiagorekin, gero aldatu egin genuen. Ez nuke jakingo azaltzen nola sortu zen istorioa.

Euskara laguntzen, lantzen, zabaltzen... eta beste herri batzuk ezagutzen



Tatra mendiak Errumaniatik Eslovakiara zabaltzen diren Karpatoen (1600 km) mendilerroko altuenak dira. Eslovakia eta Polonia arteko mugan, bi dira gailurrik aipagarrienak, Gerlachosky (2.654 m) Eslovakian eta Rysy (2503 m), azken horrek bi tontor duena, bat Eslovakian eta bestea Polonian.

Tatra garaiak mendizale eta eski zaleendako erakargarriak izaten dira; antza handia dute Pirinio zentralarekin edo Alpeekin, eta azpiegitura ezin hobe: bide sarea ongi seinaleztatua, aterpeak nonahi prestazio guztiekin eta leku estrategikoetan kokaturik. Hori guztia, benetan lagungarria izaten da txangoak, igoerak eta zeharkaldiak egiteko. Nabarmendu beharra dago desnibel handiak daudela.

Hara joan baino lehen, Oinez 2018ko ikurak erosi eta Eslovakia aldera abiatu ginen Zulu, Peio, Juanjo eta Aspi. Gure asmoa zen ikurak eramatea gailurrera igotzeko. Eguraldi txarra zela-eta ez genuen Gerlachoskyra igotzerik izan; bai, ordea, Rysyko tontorrera, makina bat jenderekin batera, eta argazki pila bat egin genuen.

Eslovakiak aukera handiak ematen ditu mendiak, eski, arrolak, BTT eta beste egiteko, eta bainuetxeak ere badaude; izan ere, haien baliabide naturalak izugarri zaintzen dituzte. Slovensky Raj parke nazionalan, adibidez, Sucha Bella eta Honad (18 km) arrolak egin genituen, ederrak dira eta oso ongi hornituak.

Eslovakiatik doa Danubioko ibilbide zikloturista ere. Guk bi etapa egin genituen, Viena-Bratislaba (75 km) Bratislaba-Medvedov (70 km). Besterik gabe, leku eder horiek bisitatzera animatzea, tren eta autobus sare



Bizitza oso bat margoari eskainia

Duela hamar urtetik hona Muskitzen bizi da Begoña Rastrilla. Gazte zela hasi zen margotzen, eta, zailtasun ugari izan dituen arren, margotzen jarraitu du egunera arte. Jauntsarasko Apeztegiberriko bentan jarri du bere azken erakusketa, Imozko eta Basaburuko paisaiez osatutakoa.



Ez zen erraza izan bere moduko emakume batendako artearen munduan sartzea. 22 urte zituela hasi zen lehenbiziko marrazkiak egiten, eta marrazki horiek hobetzeko helburuz akademia batean hasi zen Iruñeko Olite kalean, eta hortik Zapateria kaleko beste akademia batera, Pedro Salaberri artistarena. Arte ikasketak ere egin zituen ondoren, Juanjo Akerreta irakasle zuela.

Begoñak gogoratzen du Akerretaren ikaslerik kuttunen artean zegoela, eta bere irakaspenei jarraituz asko ikasi zuen. Alfonso Ascunce ere aipatzen du erreferentzia gisa, eta maila globalago batean Van Gogh. "Nik izugarri sentitzen nuen margoa, nire bizitza izan zen", hala aipatzen du Begoñak.

Dena den, ez da bide erraza izan. Bere inguruak ez zuen babesten, eta bere senar ohiaz bereiztera eraman zuen margoak. Ordutik 10 urtez ez zuen deus margotu, eta orain ari da lantxoren bat egiten, "baina orain ez da gauza bera" esaten du Begoñak.

Muskitzen bizi da orain, eta paisaiez osatutako erakusketa egin du. Aurretik erretratu eta lanabesen margoak eginak ditu besteak beste, eta erakusketa ugari jarritakoa da. Baina nekatuta dago jada, margoren bat egiten jarraituko du, baina erakusketa handirik egin gabe.

Arteak bizitako aldaketez ere mintzatu zaigu, eta argazkigintzaren indarraz. Horretan ari da egun bere seme Iñaki Larrea. Natura argazkilaritza egiten du, eta mendirik mendi, herrialdez herrialde ibiltzen da argazki hoberenen bila. Begoñak ez zuen bere inguruaren babesik jaso, eta hala esaten du: "Nire semeak nik baino erraztasun gehiago izan ditzan nahi dut, bere inguruaren babesa izan dezala. Eta horregatik ahal dudan heinean laguntza ematen diot".



“Zazpigarren urtea izango da onenekin jolasten, ezin dezaket gehiago eskatu, baina beti hobetu nahi dut”

Zazpi urte eginen ditu aurtén Anaitz Abilla ultzamarrek futbolaren maila onenean jokatzen. Athleticen harrobian sortua, talde asko igaro ditu azken urteetan (Barakaldo, Ejido, Salamanca, Hercules, Rayo Vallecano, Espanyol eta Eibar). Eibarren egonkortu dela dirudi, eta bere kirol milarik onena eskuratu du bertan, taldeko jokalaria onenaren saria jasoz. Bere kirol ibilbide osoaz aritu gara Larraintzarko kirolariarekin hizketan.



Larraintzarren jaioa, nola gogoratzen duzu zure haurtzaroa Ultzaman?

Nire haurtzaroan pentsatzen badut, oroitzapen ikaragarri politak etortzen zaizkit burura, lagunak, ikaskideak, familia... gauza asko! Beti izan naiz bihurri xamarra eta pasatutako gauza asko etortzen zaizkit burura, kar kar kar.

Gogoratzen al zara baloi batekin jolasten hasi zinen lehenengo aldiaz?

Tira, ez naiz oroitzen zehazki lehenengo egunaz, baina bai oroitzen naiz zenbat gustatzen zitzaidan bakarrik aritzea edozein lekutan nire baloiarekin, orduak eta orduak. Zenbat bronka eduki ditudan nire amaren partetik, pilo bat gauza puskatzen nuenean, baina beti izan dut, nolabait esanda, baloiarengan estimu ikaragarria.

Eskolan, zertan zinen hobia, ikasketetan ala futbolean?

Horretan ez dago dudarik, orain esan dezaket pena ematen didala ez ikas-teaz. Baina ez dago dudarik futbo-

lean hobia.

Ultzaman jokalaria profesional bat zenuten gazte zinetenean, Kuko Ziganda, erreferentzia bat izan al zen gazteendako?

Nik uste baietz, athleticeko zale ge-hiago sortu ziren bailaran eta badakit horrek garrantzi handia ekarri zuela guregan, futboleko jokatzeke, gazte asko ginen futboleko aritu ginenak, eta esan dezaket pertsona ugari oso onak zirela.

Noiz hasi zinen futbol talderen batean?

Hasieran, eskolako gazte guztiak Ultzama taldean hasten ginen, 6 urterekin eta 10-11 urterekin gure bideak erdibitzen ziren eta iruñera joan behar genuen futboleko segitu nahi bagenuen. Ni Txantrea joan nintzen beste lagun batekin eta 5 urte pasa nituen han, ilusioz beterik, 16 urte betetakoan Athleticera eman nuen pa-sua.

Athletic laster ohartu zen zugar, eta 2004an Bilbora joan zinen Baskonian aritzera. Hasi zinen

profesionalerako saltoan amesten?

Hara joandakoan jubeniletan hasi nintzen eta oraindik gaztea nintzen horrelako gauzetan pentsatzeko, baina San Mamesera joaten ginenean, Athletic ikustera, amesten genuen, ea noizbait izango genuen horrelako futbol zelai batean jolasteko aukera.

Urte batzuk eman zenituen bigarren mailan, eta taldez talde ibili zinen, zein zen zure helburua?

Ez bazara zure harrobiko lehenengo mailako taldean sartzeko gai, zure buruak bi soluzio ditu, hor uztea edo jolasten jarraitzeko gogoekin segitzea, eta ez zen erraza izan bigarren mailara salto handi hori ematea, baina ez nuen inoiz etsi, nire ametsa zen futboleko lehiatzea, eta ea noraino iristeko kapaza nintzen jakin behar nuen.

Eibarrekin lehenengo mailan jokatzea lortu duzu, eta taldeko jokalaria garrantzitsua zara. Aldaketa handia suposatu du zure kirol traiektorian?

Eibarrek gauza polit asko eman dizkit

iritsi nintzenetik, eta Eibarkoa sentitzen naiz profesionalki esanda, asko identifikatzen naiz hango herritarrekin; esan beharko nuke egon naizen leku guztietan ere eskertuta nagoela, oso onak izan baitira nirekin eta lehenengo mailan jokatzeari eman zidaten aukera hura bizitza aldatu zidan, eta esan dezaket zazpigarren urtea izango dela onenekin jolasten, ezin dezaket gehiago eskatu, baina beti hobetu nahi dut.

Taldeko jokalaririk onenaren saria eman dizute, urte askotako lanaren fruituak jasotzen ari zara?

Bueno, bai, ez didate askotan, hobe esanda, ia inoiz, horrelako saririk eman eta esker askoz jasotzen dituzu gauza hauek, lana ongi egiten duzula baitiote horrelako sariak, urte oso on bat izan da nire karreraren.

Udan atsedera hartu, baina laster hasiko zara berriz ere Eibarrekin entrenatzen, zein helburu jartzeko dizkiozu datorren denboraldiari?

Bai, maiatzaren bukaeran hasi ziren gure oporrak eta hilabete eta erdi izan dugu; orain berriz denboraldia hasia eta gure betiko helburua salbazioa edukitzea da, eta hobe lehenbailehen lortuko bagenu, badakigu lehen mailan jokalaririk eta talde guztiak taila handikoak direla. Ikaragarria izango litzaiteke aurreko denboraldia berdintzea.

Eibarren ikusten duzu zure burua? Beste talderen baten eskaintzaren bat izanen zenuen akaso.

Esan dezaket, oso gustura nagoela Eibarren eta intentzioa kontratua berritzea da, eta horretan gaude; baina badakigu ez dela beti pentsatzen duzuna pasatzen; baina, esan dudana bezala, nik hemen gelditzeko gogoak ditut.

Athleticen harrobian sortu zinen,



bueltatuko zinateke, oraingoan lehenengo taldean jokatzera?

Oso zaila da hori gertatzea, eta, esan dudana bezala, ez naiz beste gauzetan pentsatzen ari; baina, bai, esan dezaket beti gelditu zaidala barruan, ez naizela kapaza izan Athleticen lehen taldean debutatzea edo jolastea, nire kuttuneko taldea baita, baina poztasuna dut urtean bitan haien kontra jolasteko aukera dudala eta nola ez San Mameseko futbol zelaian.

Eibarren biziko zara orain, baina Ultzamara bueltatzen zara noizean behin?

Jakina, asko gustat-


zen zait herrira joatea, familia ikustera eta lagunekin egotea, hori ez dut inoiz galduko, betikoak eta betirako dira. Gure natura ikustea ere gustuko dut, mendiak, paisaia... Gure bailara oso ederra da.

Futbola gustatzen zitzaien haur bat zinen lehen, orain lehen mailako futbolaria, nola hartzen zaitu Ultzamako jendeak?

Batzuetan arraro xamar sentitzen naiz, gaurko gazteak zure lanagatik ezagutzen zaituzte, eta begiradak eta galderak izaten ditut, baina normaltasunez erantzun eta pertsonengana hurbiltzen naiz; beste herritar bat bezala sentitzea gustatzen zait. Eta nire ingurukoekin normaltasun handia dut, betidanik ezagutzen nautelako.



Urtebetetzeak



ARAIA

"Nafarroan plaza bakarra dago Espainiako txapelketara joan ahal izateko eta ez nuen inolaz ere espero nik lortuko nuenik"



KIROIAK

Irristaketa artistikoko Nafarroako txapelketa irabazi zuen Olagueko Sunbilaenea etxeko Naroa Larralde Erasun, 13 urtekoa. Noainen izan zen, ekainaren 10ean, eta espero ez zuen garaipen horrek Espainiako txapelketara eramango du, Nafarroatik joango den bakarra izanen da. Santanderren izango da urrian eta estatuko 35 patinatzaile onenatarikoen aurka lehiatu beharko du Club Patinaje Artístico Noain taldeko irristatzaile gazte honek. Hala ere, Naroak berak eta aitak argi daukate garrantzitsuena ondo pasatzea dela.



Nola izan zen Nafarroako txapelketa?

Bada, oso zaila izan zen, ikasturteko ligan bigarrena naiz, eta lehenengoa izan den Maria nire kideak irabaztea espero genuen, beraz sorpresa hartu genuen nik eta nire familiak. Txapelketetan bi proba egiten ditugu, ariketa motza eta ariketa luzea. 2 minutu ingurukoa lehendabizikoa eta 3 minutu t'erdikoa bigarrena. Luzean oso ongi egin nuen eta aldi berean nire kideak huts batzuk egin zituen, eta horrela lortu nuen garaipena. Oso pozik nago.

Eta, horrela, Espainiako txapelketan leku bat irabazi duzu.

Bai, Nafarroan plaza bakarra dago Espainiako txapelketara joan ahal izateko, eta ez nuen inolaz ere espero nik lortuko nuenik.

Martin Larralde Zandua, Aita: Bere kategorian 9 kide daude Noaingo taldean, eta bolada onean daude, egia esanda.

Urduri zaude Espainiako txapelketan lehiatuko zarelako?

Pixka bat, baina gogo asko ditut. Gehiegi espero gabe noa, esperientziaz gozatzen, lagunak egitera eta ondo pasatzera. Lehendabiziko kor-

tea pasatzea dagoeneko izugarria izango litzateke.

Asko entrenatu behar izan duzu hau lortzeko?

Txapelketa baino lehen asteen 15 ordu entrenatzera iritsi nintzen, prestakuntza fisikoa, indibiduala eta taldeko klaseak barne, baina gustukoa dut.

AITA: Pila bat ordu sartzen dituzte eta ikasturte bukaerara nekatuta iristen dira, baina egia da Naroa nahiko ongi aguantatzen duela. Baina orain, bai, Santanderrera joan baino lehen bai entrenatu beharko duela...

NAROA: ekaina eta abuztu osoa entrenatzen egon beharko dut. Beraz, oporrak motzak geratuko zaizkit. Eta gero irailean ere, noski.

AITA: uztaila eta abuztua oporretan emango zituela uste genuen, ez genuelako espero Nafarroako txapelketa irabaziko zuenik. Baina bere kideak egun txarra izan zuen eta Naroak lortu zuen. Gogorra da patinajea, pena handia ematen du Maria bezalako norbaitek, hainbeste lan eginda, egun txar baten ondorioz galtzea, gainera lagunak dira irristaketaz kanpo, baina horrela da, ohiko baino akats gehiago egin da galdu dezakezu. Naroari esaten nion: zuk ahalik eta hoberen egin eta nahiz eta ez irabazi, horrekin geratuko gara. Baina egia esanda oso-oso ongi egin zuen, inoiz egin duen ariketarik hoberena, eta irabaztea lortu zuen. Naroak duena da teknikoki ona dela, bere kideek agian espresibitate gehiago daukate, baina teknikoki ona da.

Zenbat urte daramazu irristaketa artistikoan?

6-7 urte nituela hasi nintzen. Ikastolan eskolaz kanpoko ikastaroetan hasi eta bertako monitore batek ikusi zuen ona izan nintzatekeela, bera orain Malagako klub batean dago, baina garai hartan Noaingo taldean zegoen eta bertan sartzeko eskaintza egin zigun. Gainera, Iruñean abendu oro nazioarteko

ekitaldi bat antolatzen da eta hara eramane ninduten patinajea ikustera, eta aho bete hortz geratu nintzen, jantziekin, ariketekin, eta abarrekin. Nazioarteko txapeldunak etortzen dira, eta oso ikusgarria da. Hori bai, anekdota moduan, aktore italiar bat agertu zen, kabernikolaz jantzita, ikuskizun barregarri bat eginez eta horrek izugarri izutu ninduen eta korrika batean alde egin nuen azkeneko lerroraino, irristaketa ikuskizun harrigarriaz gain, anekdota horretaz gogoratzen naiz oso ongi (barrezka). Baina patinajea asko gustatu zitzaidan eta Noaingo taldean sartu nintzen.





2018ko maiatza.

Gure alderdian, maiatzean izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak:

Jaiotzak:

LANTZ

Aimar Juvera Lizaso, maiatzaren 24an jaio zen.
Gabi eta Mariaren semea. Errotaldean.


ULTZAMA

Alkotz

Julen Fraile Ziganda, maiatzaren 25ean jaio zen.
David eta Patriziaren semea.



*Aimar haserre etorri zaigu.
Lurrean kokoriko, Jon eta
Xabier, senideak*



*Julen, honen ttikia eta
Sanferminetan*

Ezkontzak:

IMOTZ

Etxaleku

Txomin Yubero Sanz eta Maria Lourdes Choque
Carrasco, maiatzaren 19an ezkondu ziren. Apeze-
txean biziko dira.

Heriotzak:

ANUE

Olague

Antonio Otondo Gurbindo, maiatzaren
15ean hil zen.

Jose Miguel Zilbeti Erbiti, Altzateneko nagu-
sia, maiatzaren 8an hil zen.

ULTZAMA

Iraizotz

Gregorio Arangoa Ilarregi, Gure Ametsako
nagusia, maiatzaren 15ean hil zen.

BASABURUA

Igoa

Maria Matxain Ilarregi, Etxezarreko etxe-
koandrea, maiatzaren 27an hil zen.



Maritxu zena bere bilobekin



Antonio Otondo



Jose Miguel Zilbeti Erbiti

NEUMÁTICOS BETELU

Juan Alonso Ortiz

Tailer mugikorra

Pneumatikoen aldaketa

Zulaturako pneumatikoen konponketa

Erdiko karrika, 8A

Aizarotz (Baasaburua)

  info@neumaticosbetelu.es
646 47 41 66

-Zuk nahi duzun tokira joango gara zure
pneumatikoak konpontzera
-Kostu gehigarriarik gabe kontsultatu prezioak
-Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu



Mantentze-lanak Instalazioak Konponketak
Argi publikoak Proiektuak Aurrekontuak
Boletinak eta Ziurtagiriak

KARIKOLAR

ELEKTRIZITATEA

 **629 31 53 32 - 722 766 835**

 **Lizaso**

 **karikolaregoitz@gmail.com**



DABID ELIZONDO PINTURAK

DEKORAZIO- ETA INDUSTRIA-PINTURA

TEL.: 678 623866

argapin@hotmail.com

ZIAURRITZ

gotelet-a kentzea / paretak leuntzea
fatxadak zaharberritzea
iragazgaizteak (impermeabilizaciones)
kalitatea eta garbitasuna
aurrekontuak konpromisorik gabe



info@amezti.eus